

# GABON KANTAK

## 1.

Hemen heldu gerade  
berri on batekin  
gure enbajadore  
Olentzerorekin

### **Olentzero juan zaigu**

mendirala lanera  
intentziyuarekin  
ikatz egitera  
aditu duanian  
Jesus jaio dala  
laisterka etorri da  
berri ematera

Horra, horra,  
gure Olentzero  
pipia hortzetan dula  
eserita dago  
kapoyak ere baitu  
arrautzatxuakin  
biyar meriendatzeko  
botilla arduakin

Olentzero begi gorri,  
nun arrapatu dek arrain hori  
Zurriolako harkaitzetan,  
bart arratseko hamaiketan.

Olentzero buru aundiya  
entenimentuz jantziya  
bart arratxian edan omen du  
hamar arruko zagiya  
ai urte tripaundiya  
tralalala, tralalala (BIS)

## 2

**Hator, hator mutil etxera,**  
gaztaina ximelak jatera,  
gabon gaua ospatuzeko  
aitaren ta amaren onduan.  
Ikusiko dek aita parrezka  
amaren poz atseginez.

Eragiyok mutil aurreko danbolin horri  
gaztañak erre artian,  
gaztañak erre artian,  
txipli, txapla, pun!  
Gabon gaua pozik igaro daigun.

## 3.

### **Alaken! Alaken!**

Ala pikula tun paire  
Errespundela pikula tunpa  
Jesus Maria jainkoa zen.

Adiskideok!  
Ikusi duzue zelai horietan artzaia?  
Artzai txiki  
artzai haundi  
artzai mutur leuna.

Alaken!...

## 4.

### **Horra Mari Domingi begira horri!**

Gurekin nahi duela Belena etorri.  
Gurekin nahi badezu Belena etorri,  
atera beharko dezun gona zar hori.

Hatoz! Hatoz! Zure bila nenbilen ni.  
Hatoz! Hatoz! Zure bila nenbilen ni.  
Hatoz guazen adora dezagun  
Belenen jaio dan haur eder hori.

## 5.

### **Din dan don! Din dan don!**

Eguberri on!  
Zorion! Zorion! Gabonak din dan don!  
Din dan don! Din dan don!  
Eguberri on!  
Zorion! Zorion! Gabonak Gabon!

Izar bat hasi da dizdizka zeruan  
berri onak zabaltzen ari zaigu munduan,  
jaio da, jaio da, jaunaren semea,  
askatxo batean dago, lastoen gainean.

## 6.

**Gabeko izar** argitsuena  
piztutzeakin batera  
haurtxo eder bat etorri zaigu  
gaur arratsean etxera  
ordu ezkeroko etxeko danak  
poztu ta zorutzen gera  
haurra dalako zerutik honuntz  
datorren jainko berbera

# GABON KANTAK

7.

**Haur eder baten bila** gabiltza txorutzen  
ta izarrak esan digu galdetzeko hemen  
jaungoikoaren herri maite Jerusalem  
esan zaiguzu laister Jesus nun jaio den.

Artzai buru txuri bi Anton eta Peru  
Belengo estalpera etorri zaizkigu  
sartu dira barrena Manueltxogana  
ta eskaini diote arkumetxo bana.

8.

**Kas, kas, kas, atean**

nor dabil etxean  
ikusi makusi  
nor naizen ikasi

Praka zabalak  
atorra urdina  
Ai ene! Ez dakit ezer ez, ez, ez  
Ai ene! Kontatu mesedez

Mutur zikina,  
txapela beltza,  
Ai ene! Ez dakit ezer ez, ez, ez  
Ai ene! Kontatu mesedez

Pipa ahoan  
Ardoa bertan  
Bai, bai, bai, lehen orain eta gero  
zu zara gure Olentzero.

9.

Gabonak, Gabonak  
Hau zoriona!  
Bertsotan ari zaigu gaur aitona,  
ajaja! Barrezka dago amona.

**Bizarzuri, izarzuri,**  
mendi gainak xuri-xuri  
Zorionak! Zorionak!  
Bertan ditugu gabonak!

Tximini zulotik  
norbait sartu da,  
muturbeltz, begigorri, aibalio!  
Olentzero dela halaxe dio.

Bizarzuri...

Laister Urte Berri,  
gaur Olentzero,  
alferrontzi, mozkor eta tripero,  
hor dago sutondoan bero-bero.

Bizazuri....

Tranka-tranka, trostan  
hiru errege,  
hirurak datoz jator eta legez,  
panpin politak ekarri mesedez.

Bizarzuri....

10.

**Haurtxo maite nola zaude?**

Sehaskan negarrez  
zatoz bai nire bihotzera  
zatoz bai lolo egitera  
abesti maitalez,  
abesti maitalez.

11.

**Trakatan trakatan hiru errege**

trakatan trakatan Belenera  
Belenen jaio dan Jesus haurtxoa  
Tratakan trakatan jaurestera.

Meltxorrek trakatan zaldia beltza  
Gasparrek trakatan zaldi gorri  
trakatan trakatan Baltasan xarrak  
trakatan trakatan zaldi txuri